



MEMORIA, UNIVERSIDAD DEL PAS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN URREZKO DOMINA CARLOS GARAIKOETXEA URRIZARI EMATEKO

Unibertsitatearen domina Gobernu Batzarrak 1983ko apirilaren 21ean hartutako erabakiaren arabera eman ohi du Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak, "erakunde honek bere esker ona adierazi nahi dienenean edozein herrialdetako pertsona fisiko edo juridikoei, pribatu zen publikoei, unibertsitateari eskaini dizkioten zerbitzu apartengatik edota zientzien, letren edo arteen alorrean burutu duten lan nabarmengatik".

EHUko Errektoretzak bultzatu eta sustatu nahi du EHUren Urrezko Domina Carlos Garaikoetxea Urrizari ematea Euskal Herriko Unibertsitatearen sorrera prozesua sustatu zuelako EAEko lehenengo lehendakari zela, Eusko Legebiltzarra lehenengoz elkartu zela 45 bete diren urte honetan.

Unibertsitateak euskal nortasun kultural eta nazionalaren alde egin behar zuela defendatzen zuen gizartearen zati batek; beste batek, berriz, unibertsitatearen oinarritzko sena lehenetsi behar zela: hezkuntzaren, formazioaren eta pertsonaren garaipen intelektuala ([Romero Campos, 2005](#)). Debate horiek egon ziren, baina aurrera egin zen. Euskal Autonomia Erkidegoaren estatutuen 16. artikuluari jarraiki, eta Espainiako Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarrian jasotzen denez, Erkidegoaren eskumena da irakaskuntza maila guztietan. Bada, orduko araudiari jarraituta, ordura arte Bilboko Unibertsitatea zena Euskal Herriko Unibertsitatea izendatu zen 1980ko otsailaren 25ean. Eta, 1982ko apirilaren 19ko Gobernu Batzordeak onartu zuen Eduardo Chillidak sortutako ikurra bihurtzea EHUren irudi.

Bere garaian hartutako ekimen hori aitortu nahi dio Euskal Herriko Unibertsitateak Carlos Garaikotxea Urrizari, bere ibilbide politikoan zehar herri honekiko erakutsitako konpromisoaren erakusle. Izan ere, gure herriaren antolamenduan oinarritzko izan zen sistema arautzen duten legeak sustatu zituen Eusko Jaurlaritzako lehenengo lehendakaria izan zen; erakundetzen ari zen garaiotan izendatu zuten demokraziako Eusko Jaurlaritzaren lehenengo lehendakari nafar bat. Agian, lurraldetasunaren ikuspegi zabal horrek eraman zuen bere gobernua Arabako hiriburuan, Vitoria-Gasteizen, ezartzera Erkidegokoaren hiriburua eta erakunde nagusien egoitzak. Erabaki hark sustatu zuen Arabako lurraldearen euskalduntzea eta lurraldea gehiago ez zatikatzea. Garaikotxeak euskaltzaletasuna sustatu baitzuen hasieratik gehiago. Elixabete Garmendiak idatzi bezala, "Euskaldun berrien uholdekua, enpresa kudeatzaile



zen aldi berean ikastolak bultzatzen ere ibili zen Nafarroan, 1970eko hamarkadan”.

EHUren lurralde egitura ere eztabaidagai izan zen bere garaian, ea hiru lurraldetan banatutako unibertsitate bat bideragarria ote zen, hezkuntzari zuzenean lotutako auziez harago, lurralde banaketak arazo ekonomiko eta administratiboak zor zitzakeelako. Eta horrek ere badu, Garaikoetxearen ibilbidearen nolabaiteko lotura. Ez alferrik, berak izan zuen herri konpromisoak eraman zuen Garaikotxea Lehendakaritza uztera. Lurralde Historikoen Legeak gobernu autonomikoaren eta foru aldundien eskumenak mugatzen dituen legearekiko desadostasuna agerikoa izan zen lehendakariaren eta orduko bere alderdiaren (EAJ-PNV) artean. Dimisioa eman zuen lehendakari gisa 1984ko abenduaren 19an. Horren harira, 2012an Eusko Legebiltzarrean adierazi duen, LHLaren erreformaren harira, eztabaidatzeko dagoelako diputazioek izan beharko lituzketen funtzioak eta “mila buruko hidra” euskal administrazioak (Eusko Legebiltzarra: 2012-02-20).

Hala ere, politikagintzan jarraitu zuen eta alderdi politiko berri bat aurkeztu zuen 1986an: Eusko Alkartasuna. Alderdiko lehendakari izan zen 1999ra arte. Eta bere europar zaletasunak europarlamentari izatera ere eraman zuen. Aitzindaria izan zen Euskadik eta Europak bat eginik jardun behar dutela defendatzen, baita Europar Batasuna sortzen ari zen garaiotan, estatudun edo estatutik gabeko Herrien Europa defendatzera ere, beti ere sozialdemokraziaren defentsan, herritar guztien eskubideen defentsan. Lan horretan aritu zen 1987 eta 1999 bitartean. Orduan utzi zuen politika erakundeetan.

Ez ordea politikagintza. Herriarekiko konpromisoarekin jarraituta lanean aritu baizen bakearen alde. Lehendakari izan aurretik ere adierazi zuen Garaikotxeak indarkeria guztien aurkako jarrera etiko irmoa. 1994tik aritu zen hainbat erakunderekin elkarlanean.

Eta horregatik guztiagatik, eta laburbilduz, begi-bistakoa da Carlos Garaikotxea Urrizak, herri honekiko izan duen konpromisoagatik eta erakutsitako koherentziagatik, eta EHU sortzeko ekimenagatik merezia du EHUren Urrezko Domina.

Leioa, 2025eko uztailak 10

Datu biografikoak

Carlos Garaikotxea Urriza. Iruñea (1938ko ekainak 2). Ekonomian (Deusto) eta Zuzenbidean (Valladolid) lizentziaduna. Behin behineko gobernu izan zen Eusko Kontseiluko lehendakari (1979-1980) izendatu zuten, Ramon Rubialen ordezkatzuz eta Eusko Jaurlaritzaren lehenengo lehendakari izendatu zuten 1980an; bigarrenenez, 1984an. Kargua utzi zuen 1985ean. 1986an, EAJtik baztertu eta Eusko Alkartasuna (EA) alderdia sortu zuen eta 1999ra bitartean zuzendu zuen. Legebiltzarkide izaten jarraitu zuen 2001era arte, Eusko Legebiltzarrean.